

Testuak lantzen

1 Irakurgaia .

AUTOETAKO TELEFONOAK EZ DIRA FIDAGARRIAK

Autoan telefonoa jarri dutenak kezkatuta omen daude. Hasieran harro-harro zeuden. Izan ere, tresna egokia zirudien telefonoak bospasei milioitako auto dotoretan batetik bestera, bileratik bilerara, ibili behar izaten duten politiko eta enpresari handientzat. Joan-etorri horietako tarte luzeak hobeto aprobetxatzeko modua zuten horrela.

Orain, ordea, ez daude horren lasai... Diotenez, nahiko erraza omen da telefono horietan hitz egiten dena entzutea. Irrati-afizionatuek nahiko garbi entzuten omen dituzte autoetatik egiten diren dei eta hizketa horiek. "Ederki gaude", esaten dute telefono horien jabeek, "Non dago, orduan, intimitate eskubidea?". Irrati-afizionatuek, berriz, pozik dabilta jolas berri horren bitartez mota askotako hizketak eta sekretuak entzuten... Beraz, zer egin behar da? Garbi dago: autoko telefonoa garrantzi handiegirik ez duten deietarako erabili, ez garrantzi handiko deietarako. Negozioak eta horrelakoak bulegoetan egitea hobeto, bada ezpada ere...

H.

→ a. Aurkitu testuan ondoko esaldi hauen antzekoak:

ona ematen zuen
lehen lasaiago zeuden

bidaiaiko denbora
bukatu da sekretua

→ b. Erantzun:

1. Autoan telefonoa dutenak ez omen daude lasai. Zergatik?
2. Auto txikietan hasi al ziren telefonoak jartzen?
3. Idazlearen ustez, zertarako erabili behar dira autoetako telefonoak?
4. Batzuk kezkatuta daude eta beste batzuk pozik. Zeintzu dira pozik daudenak eta zergatik?
5. Zer motatako hizketak entzuten dituzte irradi-afizionatuek?

→ c. Idazlana: Esan lagun bati, 6 edo 7 lerrotan, zer alde on eta txar dituen autoetako telefonoak; zertaz hitz egin behar den eta zertaz ez telefono horietan.